

# Salatzen dut

5 urte. 1.825 egun. 43.800 ordu. Horixe Aieteko Konferentzia eta Adierazpenetik igarotakoa. Denbora laburra edo eternitatea, nondik begiratzen diogun.

Aurretiaz egindako lana tarteko, konferentziaren emaria berehalakoa izan zen. Adierazpenaren lehenengo puntuari erantzunez, hiru egun beranduago iragarri zuen ETAK jardun armatuaren behin betiko amaiera. Hortik aurrerako bidea malkartsuagoa izan da. Horrelako prozesuetan gutxitan ikusitako arduragabekeria erakutsi dute Espainiako Gobernuak (aktiboki) eta Frantziakoak (pasiboki). Bake bidean egindako aha-lerin guztiak oztopatzeko borondatea agerikoa izan da hasieratik. Armagabetzean laguntzeko prest agertu den Nazioarteko Egiatzatze Batzordea Entzutegi Nazionalera deklaratzera deituzetik, Carlepont-eko armategiaren azken operazioa. Guztia Espainian ohikoa den tonu hantuste zaharkitu eta atzerakoiarekin. Hispanitatea eta arraza, ezer gutxi espero daiteke genozidio basatia egun nazionalizat ospatu eta, are, egun horri lotuta polizia operazio bati "aurkikuntza" deitzen dion Estatu batengandik. Oztopoak oztopo, armagabetzeko borondateak irmoa dirudi eta modu ordenatu eta egiaztagarrian egiteko formula topatu beharko da.

Beste alorretan ere, Estatuaren gogoz bestera, euskal norbanako, eragile eta erakundeek esker eman dira urratsak. Behar eta nahi beste ez agian, baina aurrera egin da Aieteko bide-orrian zehaztutako hirugarren eta laugarren puntuetan, alegia, biktimen aitortzan eta elkarrizketa politikoan. Azken honi dagokionez, esaten digute oraindik denbora gutxi igaro dela eta hainbeste sufrimendu eragin duen gatazka baten ostean denbora gehiago behar dela. Neurri batean egia izan daiteke eta



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Bost urte denbora laburra izan daiteke, baina eternitatea ere. Eternitatea baina oinarrizko eskubideen urraketa erreparatuta. Eternitatea maite duten pertsonarengandik ehunka kilometrotara lo egin behar duten euskal herritarrentzat. Inongo kondenatan agertzen ez den zigor gehigarria jasotzen dute oraindik preso, senitarteko eta lagunek, kartzelaldia ahalik eta mingarri eta gogorrena egitea baina helburu bakarra

badirudi eragile politikoak ere egoera berrira egokitzeko trantsizio-epaen daudela oraindik. Alta, iritsi beharko da eguna non denborak aitzakia izateari utzi eta auzi politikoari errotik heltzea lehentasun bihurtuko den, denborarik galdu gabe.

Bost urte denbora laburra izan daiteke, baina eternitatea ere. Eternitatea baina oinarrizko eskubideen urraketa erreparatuta. Eternitatea maite duten pertsonarengandik ehunka kilometrotara lo egin behar duten euskal herritarrentzat. Inongo kondenatan agertzen ez den zigor gehigarria jasotzen dute oraindik preso, senitarteko eta lagunek, kartzelaldia ahalik eta mingarri eta gogorrena egitea baina helburu bakarra. Finean, mendekua. Urrunketaz gain, gaixotasun larriak dituzten presoak ez askatzea eta kartzela barruko baldintza jasangaitzak aipatu behar dira. Beste askoren artean, horren adibide ankerra da Arantza Zulueta abokatuaren egoera. Bi urte eta erdi baino gehiago daramatza bakartze modulan, isolatuta, bizitzeko baldintza lazarri eta penagarrietan: indarkeria giroan, intimitate barik eta beste inorekin egoteko eta inolako jarduerarik egiteko aukerarik gabe.

Aieteko bigarren puntuak egiten dio erreferentzia gatazkaren ondorioei, baina ezin dugu Espainiako eta Frantziako Gobernuen jarrera aldaketaren zain egon. Giza eskubideen zapalketa lazarri honi aurre egiteko funtsezkoa da gizarte zibila aktibatu eta antolatzea, baina bertako alderdi politiko eta erakundearen konpromisoa ere. Horretara dator Sarek –euskal presoaren eskubideen aldeko gizarte mugimenduak– abian jarritako #SalatzenDut dinamika. Konponbide demokratiko batean sinesten dudalako eta ez dudalako egun bat bera ere egoera jasangaitz honetan jarraitu nahi: salatzen dut. ■